

## ARNAS ODOLDUA

*Urkiaga eta Basaraz Estepan "Lauaxetari"*  
*BIDE BARRIJAKen irakin bizian*  
*ARRATS-BERANen ederti gurian*  
*Laukinizko gazteen ames urdurian*  
*Aberriaren bizipen goritan.*

Erdimin sutan, arnasots beroz  
Ama sabel ernaria  
Gizalditako herri odolak  
Iduri itsaso gorria  
Odola arnas izan-minetan  
Umearen edaria  
Laukinizeko maite-kabiak  
Sortu uso geznaria  
Katez ta zauriz dagon Euskadik  
Esteban dau oparia.

Olatu-bitsez urak hasarre  
Etxe ta mendi su eta gar  
Bihotz unatu askok dagie  
Jasanezinaren negar  
Gure herri zaharrak zutik iraun nahi  
Irain, egur ta zoritxar  
Bizkunde girok argi barririk  
Eusko lurrera badakar  
Jakintza bidez, borroka latzez

Hauspotuz hautspeko txingar.  
 Hautspeko txingar, herri odola  
 Iraun nahiak goritua  
 Laukinizeko aitzur laietan  
 Adore-diz-diz sutua  
 Jakite hegoz goimailaratuz  
 Argi eta dei bihurtua  
 Ibai ondoko "lauaxeta"tik  
 Mitinetan hedatua  
 Egurats nasai, bizi iturri  
 Euskotarrek xurgatua.

Erbeste zantzo, urruma latzez  
 Azoka bizia lehertu  
 Su eta garrasiz, odol-ikaraz  
 Buru eta bihotz izutu  
 Hartu-emonen jai atsegina  
 Lehergailu itsuz suntsitu  
 Erraiak zauri, gorputzak narras  
 Bonba ankerrez hondatu  
 ZUHAITZ-uria huts eta mutu  
 Gaba baltz da bilakatu.

Gaba arrotzak su eta kedarrez  
 Iruntsia dau herria  
 Errauts beroak alkartu ditu  
 Idazle eta gudaria  
 Ustekabeko kako zorrotzak  
 Lotu pare geznaria  
 Oinaze larriz, zalantza itoz  
 Badabil hegaz barria:  
 "Beste mutilek atxilotua  
 Han doa mitinlaria".

Hor da Gernika oihu eta orro  
Garrasika trumoi pean  
Gerrako garrez samin ta sumin  
Bildur ikaraz lurrean  
Gorriak jasan behar larrian  
Eraso latz gogorrean  
Euskal arima barriz argitan  
Gorpu erreen artean  
Ta zero baltz eta harrigarrian  
Izarrak keinu tristean.

Aberria ta Jainkoa ditu  
Goizalde hotzeanugar  
Zauri sakon bihotzean ta  
Euskadi osoan negar  
Etsaien armak ezten hiltzailez  
Estebanengan dira sar  
Bizarazle dogun odola  
Gasteizko zeruan izar  
Arnas odolduz euskotar lurra  
Ez zagoz sekula bakar!!!

*“Erri zintzo onek zaindu dagiala  
il gintzanen atsa, il gintzanen aala”*

*Lontzo Zugazaga*